

KUTXABANK BANKETXEAK AUZOETAN ITXI DITUEN BULEGOEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Kutxabank banketxeak auzoetan itxi dituen bulegoak direla-eta, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko otsailaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Kutxabank banketxeak hainbat bulego itxi ditu Donostian; azkena, Herrera auzoan. Itxiera honek kexa asko eragin ditu, ez baitago auzoan beste bulegorik. Kutxa Fundazioak Kutxabankeko %32 ren jabetza du, eta Fundazioan Donostiako Udala partaidea da Kutxaren sortzailea delako. Alkateak, batzordean, aste honetan Kutxako arduradunekin bilera izango zuela adierazi zuen, baina egin zituen beste adierazpenak kontutan hartuta, gai hau konpontzeko benetako borondatea duenik ez zaigu iruditu. Kutxak betidanik gure lurraldean errotuta egon dira, eta ez dira beste edozein banketxe bezalakoak izan. Hori dela-eta, Laudion eta Basaurin, besteak beste, bulegoak ez ixteko plataformak sortu dira.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Kutxabanken aurrean behar beste gestio egin ditzala Herrerako bulegoa irekita mantentzeko.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia